




ELKARRIZKETA: ANABEL URZELAI, INSTITUTUKO ZUZENDARIA

FAGOR

# Arrasate

1998ko  
Urriak 2  
422. zenb.



**ABSOLUT**  
*Made in Arrasate*  
**MARITXU**

*Aspaltian arrotzak  
dabiltsa agintzen,  
Mondrauen ere hori  
ari da gortatzen.  
Bainu bitte hortatib  
ez gabiltza zuzen,  
elkarren auzka jarrit  
ez da ezer lortzen.  
guztien onerako  
burta gaitzen*

ALC. %40/VOL  
(80 PROOF)  
PRODUCED AND BOTTLED IN ARRASATE  
BY MARITXU KAJOI VIN & SPIRIT AB. 1.0.-LITER

**HEMENGOA**

# ABSOLUT MARITXU.

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43



# Kabía

A  
L  
T  
Z  
A  
R  
i  
A  
K



A  
P  
A  
I  
N  
K  
E  
T  
A

**Konfiantza osoz.**

*Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 70*



# Une esperantzagarria

**B**adirudi, azken egunotako politika gorabeherak direla eta, mundua —gure inguruko mundu txikia— beste norabide argiago bat hartzen ari dela, batzuen eta besteen interesa konbergenteak, behingoz, horrelakoak direla frogatzera ausartu izan balira bezala. Egia esan, aspalditik itxaroten genuen une hau, inoiz ez baitugu esperantza galdu, baina beldur ginen —nintzen, idatzi beharko nuke— trenak ez ote gintuen betiko utziko geltokian.

Ez dut uste ezer berririk adierazten ari naizenik, gizarteak —hau da, gizaki guztion arteko kolektiboa— denetariko itxaropenak sorrarazi behar dituela bere kideengan, benetako kolektibo bezala ari tuko bada. Baina, gezurra dirudien arren, badira aurreko baieztapen



J. M. Velez de Mendizabal

xehe bezain logikoa ukatzen dutenak, jarrera itsu eta prepotenteetatik euren teoria eta, azken finean, praktika antzua inposatuz. Hemen teoria oso bat osa liteke, demokraziaren kontzeptuaren inguruan, interesa orokorra zer den ere eztabaida litekeelarik, gehiengo eta gutxiengoaren arteko loka-riak definitzeko.

Interesaren kontzeptua inoiz ez da erabili demokraziaren izenean, eta bai, berriz, teoria pre-demokratiko edota antidemokratikoen itzalpera. Estatu arrazoiak izan dira behin eta berriz haizatu, orain konstituzioaren ukiezintasuna aipatzen den bezalaxe. Horri, hein handi batean, interesaren kontzeptua dei geniezaioke, absolutismoaren teoria politiko hutsetik aplikatua, noski. Ohiko balio demokratikoak, gehiengo baten interesarengatik epaituta direnean, kontuz!, izan ere XX.

mendeko diktadura guztien hastapenak horretatik hasi dira, hots, interes orokorrak interes partikularrak ezabatu dituen jarreratik.

Irakurleari, aurreko lerro horiek ederki apainduko lituzketen hainbat pertsona ospetsuren izenak etorriko zaizkio burura. Ez da zaila, gure inguruan perretxikoak legez ugalduta baitira azken urteotan, euren interes partikularra salbatzeagatik orokortasunaren doktrinazale amorratuak bilakatu direnak. Eta, iruditzen zait, adibidez, Fernando Savaterrek bere "Etica para Amador" izenekoan "auzokoen fotokopia ez izateko eskubidea" aipatu ostean, kontsekuenteago izan beharko lukeela bere teoria osoa ehuntzean, praktikan inondik ez baitzaio donostiar irakasleari antzematen eskubide horren defentsarako gogoia, eta bai, ordea, behin eta berriz 40 milioi espainiarren kantu sutua egitekoa.

Euskal Herrian tentsio bizian ari gara, denok espero duguna azkenik erre-alitate esperantzagarria bilakatuko ote den. Eskua luza diezaigun aukerari. ■

## Luza diezaigun eskua Euskal Herriak bizi duen aukera paregabeari

*"Udalengandik sortu ziren (irradi lokalak) noraezean dabilta, sortu duten zerbitzuarekin zer egin ez dakiten udal gobernuen pasitibitatearen menera, hil artean bizi, hutsaren hurrengo oihartzun sozial eta entzulego mailak dituztela, aurrera gabe atzera, mirariaren edo atea behin betirako itxiko duen udal aginduaren zain"*

**Patxi Montero**

# 850

## langile-ikasle ditu Alecopek aurten

Mondragon Unibertsitateko 850 ikasle ari dira aurten Alecopen lanean. Maila guztietako ikasleak ari dira hor lanean. Irabazten duten diruak lagundu egiten die gehienerik ikasketak ordaintzen.

ITURRI ONETIK

### "Gatxi" alkategai?

Xabier Zubizarreta ez da aurkeztuko hurrengo udal hauteskundeetan alkategai izateko. Horrela adierazi zuen *Arrasate Pressen* eta badirudi halaxe izango dela. Nor izan liteke orduan, HBko zerrendaburu? Udalaren azken osoko bilkuretan izan dena konturatuko zen Xabierrek geroz eta gutxiago hitz egiten duela bere alderdiaren bozeramaile gisa eta Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi* ari dela geroz eta pisu handiagoa hartzen lan horretan. Honekin lotuta, nor da zigarroa erretzen ari dena aurtengo Mari-txu Kajoi hormirudian?



**ARRASATE KOMUNIKABIDEAK**

**ARRASATE PRESS**

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gizuzketa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepresa@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetaritza:** Marijo Deogracias, Ubano Masdera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Alenda, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26). **Disenua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemak:** Lierni Uribearen. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenaga, Mikel Itzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Uribearen, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barneña. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneri eta infitzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuaz egiten da.

**Azaleko argazkia:** Txos Azurmendi.



Arrasateko Udalerriko Laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien Laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Laguntza



## 2 ostirala

### ■ MARITXU KAJOI

• 16:30etan kale mogimendua, *Auskalo* taldearekin.

• 17:30etan *Auskalo* taldearen berbena plazan, gaztetxoentzat.

• 18:30etan erraldoien eta kilikien kalejira, gaiteroekin batera.

• 19:00etan Joxe Antonio Arizkorreta lehenengo harria jarriko du pilotaleku berrian. Ondoren idi probak eta aizkolariak izango dira.

• 19:30etan Maritxuren fanfarrearen kalejira, Txumairen zuzendaritzapean.

• 20:15etan omenaldia Jesus Mari Martinezi (Txumai, fanfarre zuzendaria).

• 20:30etan koadrilen lore eskaintza Maritxuri.

• 23:30etan *Aldaba* taldearen dantzaldia, Seberon.

• 24:00etan afariko tripa-kada eta gainerakoak apur bat jaisteko, dantzaldia egingo da herriko plazan, *Irailerako 6* tal-

dearekin.

• 06:00etan modelo desfilea egingo da Maalan. Bete beharreko baldintzak dira neskak 10 zm.ko takoi finak eta mutilek 10 zm.ko plataformak eramatea.

• 07:00etan salda eta txokolatea txoznetan.

### ■ PRESOEN ALDE

19:30etan autoilara egingo da Oñatiraino, Euskal Presoak Euskal Herrira elkargotak deituta. Irteera Sebero plazatik izango da. Ondoren kale agerraldia Oñatin, presoan 600 argazkirekin.

## 3 larunbata

### ■ ZINEA

*Seis días y siete noches*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

## 4 igandea

### ■ ZINEA

*Seis días y siete noches*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

### ■ ATZERATUEN ALDEKO ANTZERKIA

*Dakota* antzezlanaren eskainiko du Tanttaka antzerki taldeak, SL eta 3xtr3s SA taldeek, 8:45etan, Aretxabaletako kirol etxean. Saioa Aretxabaletako atzeratuen alde antolatuko da. Sarrera 1.500 pta kostako da eta 18 urtetik beherakoentzat, berriz, 1.000.

## 5 astelehena

### ■ ZINEA

*Seis días y siete noches*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

## 6 asteartea

### ■ ZINEA

*Seis días y siete noches*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

## 8 osteguna

### ■ ZINEA

*Cha Cha Cha*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik Setara.

Tel.: 943 79 26 99

*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



■ **IRTEERA PIRINIOETARA**

Besaidek irteera antolatu du Vall D'Aranera urriaren 10etik 12ra. Izen ematea urriaren 5ean amaituko da. Prezioaren barruan bidaia eta pentsioa daude sarturik. Irteera goizeko 05:00etan izango da, Garibai kaletik.

■ **IKONO ERAKUSKETA**

Jabier Mercaderrek bere zeramika lanak jarri ditu ikusgai Hotel Mondragonen. "Ikonoak" izenburupean, neurri ezberdinetako 30 mural bildu ditu. 1999an zehar Mercaderrek nazioarteko beste zeramikagile batzuekin batera Europako zein EEBBetako hainbat hiriburutan erakutsiko ditu erakustaldi honetan bildu dituen lanak. Erakusketa astelehenetik igandea bitartean izango da ikusgai, 09:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara, Mondragon hotelean.

■ **MASAJE IKASTAROA**

Hastapeneko masaje ikastaroa antolatu du Arrasateko Yoga Elkarteak. Lasaitzeko masaje oinarrituta, Mendebaldeko eta Ekialdeko masaje teknikak landuko dira. Ikastaroa urriaren 10ean hasiko da. Interesatuak Jose Luis Iñarra kaleko egoitzara joan daitezke edo 943 79 35 76ra deitu. Honekin batera, Arrasateko Yoga Elkarteak beste era

bateko saioak ere prestatu ditu. Nork bere burua ezagutu nahi duenari, bere kontzientzian sakondu nahi duenari, autoestimua landu eta gorputza, burua eta sentimenduak bateratu nahi dituenari zuzendua dago. Ikastaro hau urriaren 9an hasiko da, ostiralero, 18:30etatik aurrera.

■ **TRIKITIXA IKASTURTEA**

Urriaren 5ean ekingo diote Arrasate Trikitixa eskolakoek ikasturte berriari.

■ **BEGIRALE TITULUA**

Txatxilipurdik luzatu egin du begirale titulua eskuratzeko antolatu duen ikastaroan izena emateko epea. Interesatuak urriaren 10a arte izango dute astia. Ikastaroak 200 ordu izango ditu eta maiatza arte luzatuko da. Berri gehiago 943 79 54 56 zenbakian jaso daiteke.

■ **GERIATRIA IKASTAROA**

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak, "Geriatría" ikastaroa

antolatu du. Matrikulatzeko emakumea, eskola graduatua edo titulua lortzeko konpromisua izatea eta enplegu eskatzailearen txartela eskatzen da. 400 orduko iraupena izango du. Interesatuak 943 79 04 59 edo 943 79 56 40ra dei dezakete.

■ **UR ETA ZABOR ZERGA**

Udalak jakitera eman duenez, urriaren 15ean amaituko da epea 1998ko 2. hiruhilabeteko ur eta zabor zergaren ordainagiriak borondatzeko epean ordaintzeko. Epe hori pasatu ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

■ **DANTZA IKASTAROAK**

Lore Gazteak dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du urriaren 9tik Santo Tomasak bitartean. Azaroaren 11tik abenduaren 16a bitartean, bestalde, Karibe-ko dantzen ikastaroa eskainiko da Musakolako saloian. Berri gehiago Gazte Bulegoan izango duzue.

Haurdun bazaude, **LAURA** da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jartzeko, neurria ez da arazo izango.

Neurririk zabalenak ditugu.

**Laura**



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 05 80



**MUSIKAZALEEI**

Hamar urte pasatu dira Goikobalu Abesbatza sortu zenetik. Urte hauetan kontzertu asko eskaini ahal izan ditu. Horrekin batera, hainbat orkestrarekin eta Donostiako Orfeoiarekin abesteko aukera paregabea izan du. Horretaz gain, lehiaketa askotan parte hartu izan du eta zenbait sari ditu irabaziak. Aipatzekotan, 1997ko maiatzean Ciezan (Murtzian) irabazitako txapelketa ekarriko genuke gogora.

Atzerrian ere ibili da. 1991ko Aste Santutan Galesen eta Newcastlen izan zen. Bira hau egin zela zortzi urte pasatu ostean, Argentinan izan da, hoguei egunean zehar.

Arrasateko eta inguruetakoko jendea biltzen duen abesbatza honek musika zaletasuna eta batez ere abesteko zaletasuna bultzatzea du helburu. Horretan ari dira abesbatzan biltzen diren 16 eta 50 urte bitarteko partaideak.

Horregatik, abestea gustuko duzuen guztiei gonbita egin nahi dizuegu Goikobaluk ostegunetan 20:00etatik 22:00etara San Frantzisko Xabier Ikastolan egiten dituen entseuetara etor zaitezten. Zatozte ondo pasatzera!

Aurrez eskerrak emanez, har ezazue Goikobalu Abesbatzaren agurrik beroena.

**Jabier Arizabaleta**  
Goikobalu Abesbatzako lehendakaria



**Gida 99**

Arrasate Komunikabideak hasia da Gida 99 prestatzen. Dagoeneko landu da Leintz-Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletako publizitatea. Bide batez, konponduta daude iaz Eskoriatzan banaketarekin izan ziren arazoak.

Orain Arrasteren txanda da. Datozen egunotan, bada, eta azaroaren bukaera bitartean, Kike Dapena eta Oihana Jausororen bisita jaso dezakezue zuen denda edo enpresetan.

Aurtengoa seigarren gida izango da. Ekarriko duen berritasunik handiena alfabetoaren araberako aurkibidea izango da, egin beharreko bilaketak erraztuko dituena.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 2**
  - Egunez: Amezua, Santamaina
  - Gauez: Guallar, Bergara
- Larunbata, 3**
  - Egunez: Zabala, Zarugalde
  - Gauez: Estella, Bergara
- Igandean 4**
  - Egunez: Ruiz, Maala
  - Gauez: estella, Bergara
- Astelehena, 5**
  - Egunez: Morales, San Andres
  - Gauez: Mozos, Bergara
- Asteartea, 6**
  - Egunez: Azkoaga, Ferrerías
  - Gauez: Camacho, Bergara
- Asteazkena, 7**
  - Egunez: Español, Iturrioz
  - Gauez: Puy, Bergara
- Osteguna, 8**
  - Egunez: Korkuera, Musakola
  - Gauez: Guallar, Bergara



**OSORIK PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**Fruitu eta barazki freskoak**

Enkarguak etxera eramaten ditugu

**AUPA MARITXU KAJOI!**

Zerbitzu ezin hobea!  
Tratu atsegina

Etxetik gertu eta aparkalekua kalekoentzat.

Aranbarri Maisua, 2 behea Tel.: 929 45 92 33

**MARKO-JARTZEAK ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



# Nondik lortzen dituzu Maritxurako jantziak?

Maritxu Kajoi festa gainean dugula eta, jendea jo ta fuego dabil jantzi bila.



**Oihan Zubizarreta**  
(13 urte)  
Ikaslea

Oraindik janzkia bilatzen ari naiz. Familiakoei ari naiz galdetzen.



**Aitzol Axpe**  
(23 urte)  
Langilea

Orain dela urte dexente utzi zidaten Maritxu egunera-ko arropa eta oraindik ez dut aldatu.



**Haritz Arregi**  
(22 urte)  
Ikaslea

Aitaren ezkontzako arropa erabiltzen dut urtero.



**Nekane Lopez**  
(24 urte)  
Ikaslea

Jostun batek egin zidan Maritxurako arropa. Noizean behin ahizparekin edo lagunene batekin aldatzen dut, baina ez dut berririk egin.



**Urtzi Mendizabal**  
(27 urte)  
Biologoa

Lehengusu baten janzkia erabiltzen dut, bera dagoeneko ez da ateratzen.




**Eneritz Gonzalez**  
(22 urte)  
Langilea

Nik egin nuen, duela lau urte eta jantziko dudana laugarren aldia da.



**Nagore Eskibel**  
(14 urte)  
Ikaslea

Lagun batek utzi dit Maritxurako arropa.



**Garbiñe Heriz**  
(40 urte)  
Langilea

Ez naiz jantziko.

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

Ondo pasau Maritxu Kajoi egunean eta kontuz iturriarekin eta Bartolorekin!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

**OPEL**

**Garaje Norte**  
ARETXABALETAN

Marka guztien konponketa eta zerbitzu osoa

BASABE POLIGONOA, A-13 PABILIOIA  
Tel.: 943 79 62 65/943 79 20 86  
Faxa: 943 77 16 20

AGENTZIA OFIZIALA



astea bi hitzetan

■ Uholdeak

Urak bereak egin zituen joan den asteazkeneko erauntsian. San Isidro eliza pertik pasatzen ziren autoak kiroldetit zehar desbideratu behar izan zituzten suhiltzaileek. Elizan bertan eta alboko saloian ur mordoa sartu zen. Mugarrite, Otilora, Maala, Okendo, Sebero eta Uharkape auzoetan ere izan zen arazorik.

■ Bi gazteren heriotzak

Joan den asteko ostiral Arratsaldean Sara Vidorreta gaz-

te arrasatearraren hilotza agertu zen Getxon, Galea deritzon tokian. Hileta elizkizunak larunbatean egin ziren Nafarroan, Abaigar herrian. Astearte arrasaldean, bestalde, 20 urteko mutil arrasatear bat arbola batetik zintzilikaturik agertu zen Musakolan, kiroldetiaren atzealdean.

■ Baietz Plataforma

Martin Garitanok ostiralean Baietz Fundazioaren aurkezpena egin zuen udaltxean. Fundazio hau *Egin*

egunkaria eta *Egin* Irratia itxi zirenean sortu zen orain bi hilabete, komunikabide berri bat sortzeko asmoarekin. Horretarako mila milioi pezeta beharko dira. Gabonetarako kalean izan liteke.

■ Euskal Presoak EHra Gazte Ekimena

Euskal Presoak Euskal Herrira Gazte Ekimena taldeak bilera egin zuen, herriko taldeek gai honi buruz duten iritzia jasotzeko eta baita talde bakoitza zer egiteko prest dagoen jakiteko.



BERRIKUNTZAK IRAKASLE ESKOLAN

Mondragon Unibertsitateak 146 milioi pta inbertituko ditu Humanitate Fakultatean. Lan garrantzitsuenak dira: biatoristen eraikina eta Irakasle Eskolaren eraberrikuntza batetik eta konbentu ohia eta Irakasle Eskola elkartuko dituen zubia egitea, bestetik.

“(Espainiako Gobernuak) dio historikoa naizela, eta abar... baina historia hori haiek egin dute, ni ez naiz historikoa, eurek egin dute muntaia hori, eta frogatu da ez dagoela ezer. Haiek diote *Peixotin*. Ni ez naiz *Peixotin*, ni Enrike naiz. Hori argi utzi behar da, *Peixoto* bat dago Euskal Herrian eta beste bat izan zen Ekuadorren, beste iraultzaile bat. *Peixotillo*, *Peixotin*... eta horrelakoak dira etsaiak jarritako izenak. Zarata handiagoa egiteko erabiltzen dituzte izen horiek”.

ENRIKE PAGOAGA

*Euskaldunon Egunkaria*, 98.09.26



*ESLU*  
ile apaindegia

Tel.: 943 - 79 37 88 • ARRASATE

Ondo pasa Maritxun!

**TOKION**

Erlojuak:  
Seiko • Citizen • Lotus • Casio


• Kalkulagailuak •  
• walkmanak •  
Urrea • Zilarra • Eta abar

Erdiko Kale, 7 • Tel.: 943 79 91 64 •  
ARRASATE

**Lora**  
bar

**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Maritxu Kajoi!**





# BEREYA SAL

## elektrizitatea

- ALARMAK. TB. SATELITEAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
- SOINU INSTALAZIOAK
- TB ZERBITZU TEKNIKOAK
- KONPONKETAK OROKORREAN
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Erdiko kale, 50 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 79 / Mug.: 908 57 90 24 / Faxe: 943 77 15 34

# egizabal

**Oinetakoak  
eta poltsak**



**Betikoak!**  
Lau belaunaldiren  
bermea dugu.

Ferrerias, 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



# “GAZTEAK ETA KOMUNIKAZIOA” IX. ARGAZKI LEHIAKETA


## 2 MAILA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein.

## SARIAK

- A) kategoria (modalitatea bereiztu gabe)
  - 1. saria 20.000 PTA
  - 2. saria 15.000 PTA
- B) kategoria
  - zuribeltzean 1. saria 50.000PTA
  - 2. saria 35.000PTA
  - koloretan 1. saria 50.000PTA
  - 2. saria 35.000 PTA

Emakume Sailaren sari berezia: 40.000 PTA



Juan Jesus Huelva

**LANAK  
AURKEZTEKO  
EPEA: URRIAK 9**



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■  
Emakume Saila ■

## ALTZARIAK

- Leiho termoakustikoak
- Ateak

# UGARTE

## ARROZTEGIA

## APAINKETA

- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1  
(Gasolindegia-aren parean)  
**BERGARA**  
Telefona eta Faxe: 943 76 54 91



# Arrasateko bi alkate ohi Bruselan

Joan den astean Arrasateko bi alkate ohi izan ziren Europako hiriburuan: Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Xabier Zubizarreta HBko Mahai Nazionalako Kanpo Harremanetarako arduraduna. Biak joan dira ETaren su etenaren ostean Euskal Herrian bizi den egoeraren berri ematera, bakoitza bere ikuspegitik. Asteazkenean, berriz, Zubizarreta Euskadiko Epaitegi Gorenera eraman zuen Ertzaintzak, Espainiako Armadak ezarri dion auzian deklaratzera. Bere adierazpenak egin ostean, aske utzi zuten.



Alkate zela, ertzainek eraman zuten Bilbora. Asteazkenean ere bai.

## ALKARTETXE EGUNA

Jende asko bildu zen alkartetxearen inguruan larunbat eguerdian. Mezaren ostean, bazkaria izan zuten. Buruzagi eta aurpegi ezagunak etorri ziren: Iñaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, Patxi Ormazabal Hirigintza sailburua eta Rafa Larreina parlamentarioa, besteak beste.

Bapo bazkaldu eta gero, Jon Goikoetxea Gipuzkoako

Eako lehendakariak eta Iñaxio Oliverik hartu zuten hitza. Hauteskundeak eta ETaren su etenak eragin duen egoera izan ziren gai nagusiak

## GUDARI EGUNA

Arratsaldeko 19:30etan, berriz, Gudari Eguna zela eta,

kale agerraldia egin zen, Sebero Altube plazatik irtenda. Ibilbidean zehar presoak kale- eta amnistia izan ziren manifestariak gehien errepikatu zituzten leloak.

Kale agerraldia Seberon bertan amaitu zen, normaltasun osoz.

## Parrokiako ozentasuna aztergai

Azken hiru asteotan parrokiak kexu asko jaso ditu eliztarren partetik, San Joan Bataiatzailea elizan oso txar to entzuten zelako. Zorionez, teknikoek konpondu dute arazoa.

Megafonia arazoak konponduta, orain beste kontu bat geratzen da konpontzeko: elizaren ozentasuna, sonoritatea. Egin diren zaharberitze lanekin, parrokiak galdu egin du ozentasunean: ohiartzun handia sortzen da. Hori konpontze aldera, joan den ostegunetan Gasteizko espezialista talde bat izan zen frogak egiten eta esan liteke aurkitu dutela konponbidea.

Behin betiko txostenaren zain oraindik, soluzioa haxe izango litzateke: elizaren atzean ireki eta itxi egiten den kortina handi bat jaretzea; jarlekuen azprietan eta bizkarraldeetan soinu zurgatzailea ipintzea. Hori eginez gero, elizak erreberberazio ideala lortuko omen luke.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## URRATS

### AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

## ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

## UGARTE

### Industria hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00  
Faxa: 943 - 793412

## • Txitxinpe •

### Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

## ZUK NAHI Taberna

Pintxo goxoak  
giro onenean!

Erdiko kale ARRASATE  
Tel.: 943 79 79 26

## JAI ZALE TABERNA

- Ogitartekoak • Infusio naturalak eta...
- Pintxoak

MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE



## Udaletik alde egin dute

Astelehenean izandako prentsaurrean, Emakumeen Asanblada eta Egizan taldeek Udaleko Emakumeen Batzordetik alde egin izanaren zergatiak azaldu zituzten. Hirutariko gobernuak izan duen lan politikarekin ados ez daudelako joan dira nagusiki. Joan egin dira Emakumeen Batzordean sei urtez lanean ibili ostean, baina Emakumeen Asanbladako Julia Mongek esan zigunez, hartutako erabaki hau ez da behin betikoa eta emakumeen alde borrokatzen segitzeko asmoa azaldu zuen.

## Diru laguntzak GKBei

Asteleheneko Gobernu Batzordeak onartu egin zuen Arrasateko gobernuz kanpoko lau elkarteri diru laguntzak ematea. Guztira, milioi t'erdi pezeta emango zaie elkarte hauei: Komite Internazionalistak, Manos Unidas, Serso-San Viator eta Harreman.

# Euskara merkataritzara zabaltzeko asmoa



Ibai-Arteko denda guztiak sartu nahi dira egitasmo honetan.

Asteleheneko Gobernu Batzordean *Euskara Merkataritzara* izeneko egitasmoa aztertu eta beronen lehenengo fasea onartu zen Arrasateko Udalean. Euskara Batzordeak aurkeztutako plan honen helburua merkataritza euskalduntzea da eta bi fase nagusi ditu.

Lehenengoan, Ibai-Arteko dendari txiki guztiei eskutitz bana bidaliko zaie egitasmoaren berri emateko. Ondoren, dendari guztiak bisitatu ondoren, hauen erantzuna jasoko dute. Azkenik, emai-

tzen txostena eratu da.

Bigarren fasean, berriz, dendari bakoitzari plan pertsonalizatu bat egingo zaio, bakoitzak dituen premien arabera. Teknikari batek, gainera, bakoitzaren jarraipena egingo du, arazoak zelaitu eta erraztasunak emateko helburuarekin.

### AED-K EGINGO DU LANEN GARAPENA

Era berean, plan honetan proposatutakoari jarraituz, lehenengo fasea burutzeko lanak

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteari ematea erabaki zen. Lan hauek abenduaren bukaera baino lehen amaituta egon beharko dira.

Hau ez da udalak antzeko kanpainak egiten dituen lehen aldia. Izan ere, euskara bultzatzeko beste programa batzuk ere badaude eta indarrean, Euskararen Aldeko Hitzarmena adibidez. Bestalde, beste udalerrri batzuetan ere egin izan dira antzeko saioak, Bergara, Aretxabaletan eta Eibarren kasu.



## Lubia

*Cinetakoak*

*Poltzak*  
*Zapatak*  
*Gorrikoak*

Ondo ibili Maritxun!

Mitarte, 14 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 16 00

Biteri, 1 • ARRASATE  
Tel.: 79 66 53

# ESKIÑA taberna

**Zorionak eta ondo ibili San Joanetan!**  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20



**SUPER BM SUPERMERCATUAK  
BEHAR DITU:**

- Arrain saltzaileak
- Harakinak
- Txarkuteruak

Interesatuak deitu 943 63 33 32 telefonora  
(Cristina Ochoa)

**UNIALCO S.A**  
Ctra OIARTZUN a/g. Apdo.126 IRUN 20305  
(Gipuzkoa)  
Tel.: 943-65 53 52 / Fax: 943-65 53 50





- ITURGINTZA OROKORRA •
- BAINU ALTZARIAK •
- MANTENIMENDUA •
- BEROGAILUAK •
- AIRE GIROTUA •
- GASA •


**Goza ezazu  
Maritxu gaua**

ERAKUSKETA:

Gipuzkoa Etorbidea 39, behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 01 85 Mugikorra: 919 41 44 44

**OPEL** 

**Maritxu  
Kajoiko  
martxa  
ederrean!!**



**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia •  
ARRASATE Tel.: 943 79 05 86





Errezago oraindik  
Orain, lehen  
**6 kuotak**  
**DOHAINIK**

# diseinua

muga barik




**RENAULT**

## MECA TAILERRAK

Tel.: 943 79 50 12 (Arrasate) / 943 76 40 68 (Bergara)



# Maritxu Kajoi



**Maritxu Kajoi**  
 gaur da, mon-  
 dragoetarrak  
 dotoreen janz-  
 ten diren gaua.  
 Horixe egingo  
 dute eta, askok eta  
 askok gaur gauean.  
 Denbora luzez  
 prestatzen aritu  
 diren janzkia ipini,  
 dotore-dotore  
 orraztu, apaingarri  
 eder batzuk aldean  
 hartu eta...  
 Gora Martxi Kajoi,  
 txanpaina, ardoa eta  
 gaua!



Modeloak: Eider Gonzalez eta Ion Lekunberri. • Apaingarriak: Ceciaga. • Tokia: Mondragon Hotela  
 Argazkia: Ion Ozaeta.

**Uriarte**  
 SPORT

*Onda pasau  
 Maritxu  
 Kajoi gaua*

Olarte, 6 • Tfnoa: 943 79 27 78 • ARRASATE

**Spek**  
 Denda



Iturriotz, 19  
 (Herriko plaza) ARRASATE



ILEAPAINDEGIA

**Dotore joan Maritxu egunean**

Gorbea kalea 2.zkia,  
 (Eroski handiaren parean)  
 ARETXABALETA

Gorde zure txanda  
 943 77 09 44 telefonoan.



# Maritxu Kajoi, g


**Gaueko soineko beltzak, papar handiak, motots nabarmenak... Asko aldatu da Maritxu Kajoi gauean mondragoetarrek janzten dituzten soinekoen itxura, bai eta soineko horiek janzten dituztenen adina ere. Jakin izan dugunez, gaur egun gaztetxoak dira, kasurik gehienetan, janzkia egitea eskatzen dutenak, lehenengo aldiz Maritxu gaua biziko duten neskatoak, hain zuzen ere. Horixe esan digute behintzat bisitatu ditugun jostunek eta oihal saltzaileek.**



Lourdes, Lilura oihal dendako jostuna bezero batekin.

**O**rain dela 21 urte ospatzen hasi zen jai honek aldaketa handia izan du bere itxurari dagokionez. Garai bateko janzkiak alde batera laga eta gaur egungo jai dotoreenetan erabiltzen diren soineko luzeak nagusituko dira gauean ere.

Pilarrek (Telas Pilar) azaldu digunez, neskatoak dira kasu gehienetan janzki berria eramaten dutenak. "hamalau-hamabost urteko neskatoak izan dira janzkia egitea eskatu digutenak". Antzeko zerbait esan digu Lilura dendako Inmakuladak ere: "gazteenak izan dira eskaera gehienak, hamalautik hemezortzira bitarteko neskenak. Helduagoentzat



Mehereko Tobiasek, mutilentzako eta neskentzako jantziekin.

ere egin ditugu, baina gehienak gazteak izan dira". Sikolen ere bezero bertsuak izan dituzte aurten. "Datozenak geroz eta gazteagoak dira, baina adin tarte bat jartzekotan hamabost-hogeita hamabost, esango nuke".

Hiru lagun hauek bat datoz janzkien estiloa aldatu dela esatean. Pilarrek dioenez, "hasieran aspaldiko janzkiekin antza izatea eskatzen zizuten, baina orain gau-janzkia da gehien egiten dena". Inmakuladak dioenez, "aurten badi-rudi bezero guztiak ados jarri direla soineko eredu bera eskatzeko. Denek tirantedun soinekoak eskatu dizkigute. Lehen lasaiera zuten soinekoak eskatzen ziren bezala, orain geroz eta ximpleagoak eta leunagoak dira". Genmak baieztatu digu "Sisi estiloko janzkiak" albo batera gelditu direla; "lehen arranditsuak izaten ziren soinekoak, baina orain zuzenagoak dira".

## ALDAKETA GEHIAGO

Neurri txikiagoan, baina aldatzen hasi den beste kontu bat soinekoen kolorea da. Nahiz eta beltzak jaun eta jabe izaten jarraituko duen, jendea kolore biziagoak erabiltzen hasi da. Pilarrek dioenez, "jendea hasi da koloreren bat edo

**XARAMELA**  
taberna

Pintxo goxo-goxoak **Ondo pasa Maritxutan!!**

Loramendi, 1 (Arimazuri Plaza) Tel.: 943 79 61 64

OPIL  
OKINDEGIA  
**DONIBANE-PAPVR**  
GOZOTEGIA

Hurbil zaituz  
eta dastatu gure  
ofi eta pastel  
bereziak!

Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 943 79 80 50 • ARRASATE



# urik dotoreena

beste eskatzen, baina beltzak nagusia izaten segitzen du. Morea, urdin-lila... Gorriak ere eskatu dizkigute, baina ez berau bakarrik, beti besteren batekin nahastua". Beltzaz gain, gorri iluna eta morea erabili dituzte Liluran. Urdinen bat ere eskatu omen diete Sikoleko jostunei.

## PREZIOA

Gure adituek diotenez, soinekoen kostua erabilitako oihalaren arabera aldatzen da.



Pilar (Telas Pilar) oihal artean.

Modelo bakoitzak oihal kopuru bat behar du eta oihal mota bakoitzak ere prezio bat dauka. "Belusko tirantedun soineko batek 8.000 pta balio du, baina 5.000 pta. ko janzkiak ere egiten dira, noski, oihal sinpleagoa erabiliz", dio Pilarrek. Liluran eta Sikolen soineko garestiagoak ere aurkitu ditugu. "8.000 pta. tan ateratzen dira belusko soinekoak, baina 10.000 raino ere heletzen da jendea. Hortik gora gehiegixko iruditzen zaie", dio Inmakuladak. Genmak, berriz, denerako jendea dagoela dio "10.000-12.000 pta. artean aritzen da jendea. Noski, azken unean eginda ditugun soinekoak erostera etortzen direnek gehiago ordaintzen dute".

Jakina, denboraz ibiltzea oso garrantzitsua da. Meher dendan ere izan gara eta Tobiasek esan digunez, bera urte osoan zehar aritzen da Maritxurako soineko bila, aukera onenetan erosi ahal izateko. "Prezio egokian saldu nahi iza-



Sikoleko Genmak poltsak erakutsi zizkigun.

nez gero, denboraz ibili behar izaten naiz. Irailean ekarri nituen. Gehienak 5.000 pta. koak, bestela ez naiz ausartzen. Jendeak ez du nahi izaten diru askorik gastatzea gau bateko.

## ETA MUTILAK ZER?

Mutilak ez dira konplikatzen Maritxutan janzteko. Dendentan esmokinak eta frakak izaten dituzte aukeran, baina kasu gehienetan, aitarien edo

aitonaren ezkontzako janzkiak berreskuratu eta horietxekin ateratzen dira kalera. Dena den, normalean ez dute gorbatarik erabiltzen, tximelleta edo pajarita eta gorbataxtoak baizik. Hala ere, badira janzkia egitea eskatzen dutenak ere, baina gure jostunek diotenez, garesti ateratzen da mutilen etiketa jantzia. Horregatik, nahiago izaten dute emakumeenak bakarrik egin. ■

Ikas ezazu dantza egiten Nayrelisekin

**ATERPEN**



**Dantza afroamerikarrak**

**Son** - Salsa - Cha, cha, cha - Kubako erritmoa -

- Runba - Rueda kasino - Koreografiak -

- Kabaret teknikak -

Eman ezazu ikastarorako izena Aterpe Kafetegian (Amaia antzokiaren ondoan)

Tel.: 943 77 03 87

Lehenengo 3 irabazleek ikastaroko lehenengo hilabetea dohain izango dute!

**Kubako zein herritan  
sortu zen Son musika?**

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Telefona: .....

Erantzuna: .....

*Helarazi ezazu kupoia  
Arrasate Pressera*





# Orrazkera ere z

*Soineko garrantzitsua baldin bada Maritxu gauean, orrazkera ez da gutxiagorako. Herriko hiru ile apaindegitan izan gara eta azaldu digutenez, sekulakolana izaten dute Maritxu eguneko bazkalostetik iluntza bitartean. Brushingeko Isabelekin, (B) Gorka ile apaindegiko Gorkarekin (G) eta Imageneko Isabelekin (I) izan gara maritxuzaleen orrazkeraz galdezka:*

— Bezero gehiago izaten duzue Maritxutan?


— **B:** Bai, jende asko etortzen da, egun guztirako eskaerak ditugu.

— **G:** Beste ostiraletan baino lan gehiago izaten dugu.


— **I:** Bai, egun guztirako bezeroak ditugu.

— **Orrazkera klasikoak ala modernoak dituzte nahiago?**

— **B:** Klasikoak. Mototsak, ile bildua eta trenzak



Brushing ile apaindegiko Isabel.



Gorka ile apaindegian, Gorka bera eta bere lankidea harrar...

dira nagusi gau horretan.

— **G:** Motots klasikoak eta orrazkera dotoreak erabiltzen dira. Jendeak klasiko baino, nahiago izaten du dotore joan.

— **I:** Mototsak eta kiribilak dira nagusi.

— **Esan daiteke orrazkera**

**aldatu egin dela?**

— **B:** Jendea nahiko konformista denez, gustura gelditzen dira guk egiten diegun orrazkerarekin, baina mototsak modernoagoak direla esan daiteke.

— **G:** Bai, piska bat bai.

Jendea geroz eta gehiago ausartzen da bestelako orrazkerak eramaten.

— **I:** Fantasiatzko orrazkera nagusitu da aspaldian. Batzuek koloretako metxak ere egiten dituzte azkenengo urteetan.



**ESKOLA PARTIKULARRAK**  
• OHO - EII - BBB - LH - BT - UBI

**INGENIARITZA**  
• Algebra I - Kalkulua I eta II - Fisika I eta II - Termodinamika - Informatika I

**GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**

**HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN (KING'S COLLEGE)**

**ZER ARI ZARA ITXAROTEN? EGIN ZURE MATRIKULA**

**MEKANOGRAFIA**

• Ordenadore bidez

**INFORMATIKA**

**OFIMATIKA**

• Testu prozesatzailea

• Datu Baseak

• Kalkulu orriak

**PROGRAMAZIOA**

Qbasic - Turbo Pascal - Turbo C - Dbase - Cobol...

**INTERNET**

• Nabigatzea - Posta elektronikoa - Web orriak

Garibai, 6 - B ARRASATE

Tel/Faxa: 943 77 11 06e-mail: bikain@jet.es

**DISCO-BAR**



**Disco-Bar Gurelekuk MARITXU jai zoriontsua opatzen dizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29



# aindu behar da



uen argazkian.




Imagen ile apaindegian Isabel harrapatu genuen lanean.

— **Gizonak ala emakumeak gehiago?**

— **B:** Maritxu egunean denak emakumeak izaten dira, gizon batek ere ez du txanda hartu egun horretarako.

— **G:** Neskak izaten dira gehien bat. Tartean mutilen bat

ere izaten da, baina oso gutxi.

— **I:** Dudarik gabe, emakumeak. Mutilek ez dute ile apaindegira etorri beharrik. Ile gogortzailea eman eta aurrera!

— **Zer adinetako bezeroak dituzue?**

— **B:** Egun horretarako hogeita hiru lagunek hartu dute txanda eta gehienak gazteak dira.

— **G:** Hemezortzi-hogeita hamabost urte arteko emakumezkoak dira gehienak.

— **I:** Hogeita bost ema-

kume ditugu, denak hogeitahogeita zortzi urte bitartekoak.

— **Jendea jantzita etortzen da orraztera?**

— **B:** Ez, arratsaldean ez.

— **G:** Azken unekoak bai, baina orokorrean ez.

— **I:** Ez, bestela alferrik galtzen zaie orrazkera.

— **Ideia finkoekin etortzen dira?**

— **B:** Denetik dago, baina gehienetan guri lagatzen digute nahi duguna egiten.

— **G:** Hori janzkiaren arabera izaten da. Janzkia moderno bada, orrazkerak estilo horretakoa izan behar du.

— **I:** Normalean aukeran uzten digute.

— **Noiz arte egingo duzue lan?**

— **B:** 21:30ak 22:00ak ingurua arte ziur aski.

— **G:** 22:00ak arte gutxi gorabehera,

— **I:** Ia-ia afalordua arte.

**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

**APAINKETA**

**ARROGOI**  
**TABERNA**

*Maritxu jaia iritxi da, zatorz guzana!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**ETXERAT TABERNA** **ZURGIN KANTOI, 5**  
**TEL.: 943 79 20 52**  
**ARRASATE**

**EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!**





*Ezkerraldeko bi argazkiak iaz atera zituen Antonio Murillok. Dotore asko harrapatu zituen goiko toreroak eta Mainer eta bere lagunak. Eskuinean goian, Arantzasu eta bere lagun taldea orain dela urte batzuetako Maritxutan. Eskuinean behean, Jabier Ozaetak 1990ean sekulako bikotea aurkitu zuen. Dotore asko bai, baina bakeroekin!*



# MENDIZABAL



## okindegia

Kalebarren, 10 • Tel.: 943 75 20 91 // Baltegieta, 6 • Tel.: 943 75 13 99  
SORALUZE



**Era guztietako artikulua  
ile apaindegietarako**

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

## BAKAILOETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07





*Argazki hauek ez dira gaueko lehen orduetan ateratakoak. Begira bestela ze aurpegi dituzten agertzen direnek.*



*Beheko biak, berriz, Antonio Murillok atera zituen bere tabernan.*

*Adibide bat jartzearren, Argiako kazetaria. Goiko bi argazkiak Jabier Ozaetarenak dira.*




**ALDAPE**  
Taberna

Espezialitatea:  
menua - karta

Iturriotz, 41  
Tel.: 943 79 70 41  
ARRASATE


**BOLIÑETE**

**OILASKO ERRETEGIA**  
Bertan jateko edo eramateko.

Urriaren Setik 21era arte itxita egongo da

Maritxu Kajoi zorionsua opa die bere bezeroei

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91



**AZKARATE MORRAS**  
**PODOLOGIA**  
**KLINIKA**

ORDUA ALDEZ AURRETIK  
Uribarri etorbidea, 5 behea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 53 63

**OSTANTZ**


1998-10-2 • ARRASATE PRESS /21

**LONTXO**  
**TABERNA**


Olarte, 12  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 14 91

*Aupa Maritxu!*





**Goian, aurtengo bederatziruena. Behean, iazko miraria: astoa eta dragoia adiskidetu egin ziren.**




## Kontuak garbi

**Hona hemen Utzune Urrizalki Maritxu Kajoi Jai Batzordeko kideak esan diguna.**

- **Zenbateko aurrekontua izan du batzordeak?**  
— 1.980.000 pta.
- **Zenbat eskapulario atera dira?**  
— 5.000
- **Zenbatean saltzen dira?**  
— 200 pta.tan. Espero dugu eskapularioekin 850.000 pta. ateratzea. Gainerakoa taberna eta jatetxeen laguntzarekin bilduko dugu.
- **Hasi zarete saltzen?**  
— Batzordeko kideok 25na eskapulario saldu behar ditugu Maritxu aurretik.
- **Zenbat hormirudi atera dituzue?**  
— 500 bat atera dira. Preso bakoitzari bat bidaltzen zaio eta beste guztiak tabernetan eta inguruko dendetan jartzen dira. Kanean ez dira ipintzen.
- **Zenbat esku orri atera dira?**  
— 5.000. Presoei bana bidaltzen diegu, hormirudiarekin batera. Beste guztiak taberna eta dendetan lagatzen dira, jendeak har ditzan.
- **Noiz hasi zarete Maritxu Kajoi gaua prestatzen?**  
— Irailaren bigarren astean bildu ginen lehen aldiz.
- **Mirariak lan handia eman dizue?**  
— Urtero bezala, ideia guztiak bildu eta burua apurtu dugu, baina hori ere hantxe ikusi beharko da.

**MARITXUN ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

## Takoi

ZAPATA KONPONKETAK  
GILTZEN KOPIAK

Kalealde, 2 behe (Larreko etxeak)  
Tel.: 943 79 84 95



- Janari prestatuak
- Artisanu produktuak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Bokatak
- Bakailaoa

Mitarte 10 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



**Eta Maritxu  
ostean...  
Gozatu mendiaz**

**Ez dugu miraririk egiten...  
... baina miraria egiteko bidea  
zure esku jartzen dugu**



**futbola • saskibaloia • mendia • atletismoa • etab...**

**KIROL BAKOITZARI ERANTZUN BAT**

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • ARRASATE



**ARRASATE  
KIROLAK**



Errebelatu  
azkarra

  
**BERRIA**

**ORDUBETEAN**

denbora eta **DIRUA\***  
irabaziko dituzu



\* Orain, zure argazkiak ordubeteaz errebelatzen dituzun bakoitzean 100 pezetako txartelak irabaziko dituzu IKATZ - eko edozein produkturen truke aldatzeko.



Iturrioz, 8 - Bajo • ARRASATE  
Tel. (943) 77 04 01 • E-mail: [ikatz@jet.es](mailto:ikatz@jet.es)

**IÑURRATEGI** anaiek espedizioetako argazki - lanak  
IKATZ-i uzten dizkiote

IKATZ, S. A. IÑURRATEGI anaien espedizioetako enpresa laguntzailea.

GASTEIZ • APPASATE • BURIO • EIBAR • MIRANDA DE ERBO




# Udazken honetan



810

Nikon argazki-kamara.



1.870

14"ko Grundig telebista.



680

Donostiako Termas La Perla bainuetxea.



370

24 piezako mahai-tresneria.



595


Hotel-bonua.




740

Fagor markako 2 lapiko azkar.

## Super 55 Libreta



ESKATU 98ko SARIEN KATALOGOA ZURE BULEGOAN



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Zure konfiantzari erantzuten diogu

Super 55 libretak, interesak emateaz gain, opari ziurak ere eskaintzen dizkizu, inolako zozketarik eta eperako ezarpenik gabe: bidaiak, opariak, hoteleko egonaldiak...

Urriaren 1ean katalogo honetan aurkezten dizugun sari promozio berria hasiko da.

Hilero-hilero zure Super 55 libretak puntuak pilatuko ditu eta, martxoan eta urrian, zuk aukeratzen duzun sariarekin trukatu ahal izango dituzu.



875

Fagor zurgagailua.



160

Urrezko belarririkotak.



445

5 piezako kafe-jokoa.



1.225

Portzelanazko baxera eta kafe-jokoa. 63 pieza.



520

Sony irrati-kaseta.



938

Nekazal turismoa Nafarroan.



# Txirrindulari denboraldia amaitu da



Asteartean izan zen San Mikel saria. Irudia: Udanako mendatea igotzen.

Fagor eta Born Jay taldeko txirrindulariek agur esan diote 97-98 denboraldiari. Gazte mailako eta senior mailako bi taldeek Oñatiko San Mikel lasterketa izan zuten aurtengo azkena. Fagorrekoek igandean izan zuten proba, nahiz eta zorte eskasarekin. Velasco erori egin egin


zen eta min hartu zuen besotan eta hankan.

Senior mailakoek asteartean jokatu zuten San Mikel saria. Jon del Rio seigarren izan zen eta Oskar Asaksibar hamalagarren Bi txirrindulariek denboraldi polita egin dute. Beraz, merezitako atsedena hartuko dute guztiek.


## Eta Zaldibar noizko?

Urtero Maritxu ostean hasten den Zaldibarko Futbito Txapelketa arriskuan dago. Maritxu Kajoiren biharamonean hasi ohi den txapelketa antolatu gabe dago oraindik. Orain arteko antolatzaileek atzera egin dute eta berriak, dirudenez, ez dira denboraz ibili. Baina nor izango da Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaile berria? Klean entzuten diren zurrumurruek ara-

bera, Bonba Taldie. Bai, bai, horixe! Bonba Taldie! Baina oraindik, zurrumurrurru bat baino ez dela ere esan beharrean gaude. Bonba Taldie aste honetan edo hurrengoan bilera egitekotan da eta agian, futbito txapelketa aztergai izan daiteke. Hala ere, eta kontuak kontu, Zaldibarko Futbito Txapelketa bertan behera gelditu dela baino ezin dugu baieztatu, ziurtasun osoz.



## FUTBOLA Lehen garaipena



Preferente mailako Mondra taldeak denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen joan den


larunbatean. Urretxuko Urola taldearen aurka izan zen. 1 eta 2 irabazi zieten urretxuarrei. Juanina Garairen mutilek liga honetako lehenengo hiru puntuak eskuratu zituzten garaipen honekin eta sailkapeneko azken lekuetatik urruntzen hasi dira. Asteburu honetan Atxabalpen arituko dira, Orioren aurka. Partida arratsaldeko 16:30etan jokatu da.

Nesken taldeak, ostera, ez zuen zorterik izan etxean jokatu zuen denboraldiko lehen partidari. Esti Loitiren neskek 1 eta 3 galdu zuten Atxabalpen, Faduraren aurka. Aste honetan Añorga izango dute aurrez aurre, igandean 11:30etan.

Maila baxuagoko taldeei dagokienez, haur mailakoek larunbatean izango dute aste honetako norgehiagoka. Atxabalpen arituko dira Antiguakoaren aurka, arratsaldeko 17:00etan. Igandean, berriz, preferente mailako norgehiagokaz gain, beste bi partida izango dira Atxabalpen. Goizeko 10:00etan lehen urteko kadeteak arituko dira Mutri-

kuren aurka eta 12:00etan, lehen urteko gazte mailakoek txanda izango da. Hauek Uda-Almenen aurka jokatu dute.


## ESKUBALOIA Hasiera eskasa



Arrasate Eskubaloi Taldeak galdu egin zuen etxean jokatuako lehen norgehiagokan. Escolapios talde bilbotarraren bisita izan zuen eta 15 eta 32 galdu. Partidaren hasieratik hasi ziren Escolapios taldekoak golak sartzen eta lehen zatiaren amaieran 7 eta 17 zihozten. Aste honetan ere etxean izango dute

norgehiagoka, igandean, 12:15etan Iturripen.

## SASKIBALOIA Bigarrena etxean



Etxean jokatu du ligako bigarren jardunaldia Arrasate Saskibaloi taldeak. Joan den asteburuan ekin zion ligari eta tar- te estuarekin izan bazen ere, ez zuen garaipena eskuratu. 70-66 amaitu zuen Bilboko Euskadi Siglo XXI taldearen aurka. Aste honetan etxean jokatu du Goierri taldea izango du aurrez-aurre.



# Udazken honetan

"la Caixa"ko edozein  
Txartelarekin

**Zinea**  
**-100 pta.**



**Hatz bakar batekin,  
zeuk erabaki.**

Aurreztu 100 pta. Zine sarrera  
bakoitzeko, ServiCaixan erosita  
"la Caixa"ko edozein Txartelarekin  
(Visa, Caixa Abierta, Donostia  
Kultura, Tarjeta Monedero).

Urriaren 31 arte balio du.

Sarreren salmenta 24 orduetan zehar



**ServiCaixa**

**"la Caixa"**

[www.lacaixa.es/servicaixa](http://www.lacaixa.es/servicaixa)

## BIZKAIA

*Leioa*

ARTEA ZINEMAK

*Basauri*

BILBONDO ZINEMAK

*Barakaldo*

MAX CENTER ZINEMAK

## GASTEIZ

GURIDI ZINEMAK

SAMANIEGO ZINEMAK

## DONOSTIA

WARNER  
LUSOMUNDO





# OHOREZKO-MATRIKULA

gidari onenek merezi dute

## Zatoz MAPFREra Areagotu zure hobariak

Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, gaur egungo polizaren antzintasuna gorde ahal izango duzu.

(95-I-I baino lehenago edozein konpainiatan kontraturiko polizentzat)

Lor itzazu **hobariak onak denborarik laburrenean.**

Automobil Aseguruetan dagoen **Lehen** Erakundearen babesarekin.

**3.000.000 ibilgailu baino gehiago** aseguraturik eta **2.400 bulego, bezeroak zaintzeko.**

Asegura ezazu zeure autoa behar bezala.



**MAPFRE** MUTUAIDAD

Ondo gidatu. Seguru ibili.

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 79 89 00

Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 79 71 31

Ondo,  
pasa  
Maritxu  
garean!



**Zuhaitz**

J A T E T X E A



Berriz ere zabalik  
Karta eta eguneroko menuak

Rosario, 4 LEINTZ-GATZAGA Tel.: 943 71 54 94



J.L. GOIKOLEA eta I. ARREGI, HORMIRUDIGILEAK

## Hemezortzi urte Maritxurekin

Juan Luis Goikolea eta Iñigo Arregik egin dute aurtengo Maritxu Kajoiko hormirudia. Dagoeneko hamazazpi edo hemezortzigarren hormirudia da aurtengoa (kontua ere galduta daukate). Lehenengo urtean Jagoba Aranzabalek egin zuen, eta bigarrenaren egilea ere beste norbait omen da. Juan Luis eta Iñigo jai honetako hirugarren urtean hasi ziren.

— Aurtun zenbat denbora igaro duzue hormirudia egiten?

— Presaka ibili gara aurtun, arratsalde batean bakarrik egin dugu eta. Ideia garbi geneukan.

— Zer dela eta hasi zineten biok batera hormirudia egiten?


— Lehenengo hormirudia biok batera egin genuen momentu batean. Komiki gisakoa zen, arkatz markatzailez egin. Baina hori lanetik kanpoko gauza izan zen, eta ongi pasatu genuen egiten. Bestalde, bi pertsonaren artean hormirudi bat egitea oso gauza zaila da, bakoitzak bere gustu eta ideiak dituelako.

— Beste hormirudirik egin duzue sekula?

— Bai. Behin San Joanetakoa egin genuen eta beste behin Santamasetakoa ere bai. Hauetaz gain, egin ditugu beste batzuk ere. Dena den, lehiaketetara ez gara aurkeztzen.

— Horrenbeste urtetan Maritxuren hormirudia eginez, ez zaizkizue ideiak agortzen?

— Ez. Gainera eskema bat hartu eta hormirudiak bata bestearekin lotzeko segida antzeko bat egin dugu. Horregatik, estetika aldetik eta, beti dira antzerakoak. Istorio gisako bat kontatzen dugu. Urtean zehar gertatu diren anekdotak ere laburbildu izan ditugu, baina aurtun beran-



du hots egin ziguten eta ez dugu horretarako astirik izan.

— Hormirudi guztiak gordeta izango dituzue, ezta?

— Bai, jatorrizko guztiak guk daukagu. Hauek ezberdintasun handiak dituzte argitaratzen diren hormirudietatik. Alde batetik, neurria desberdina da. Bestetik, orijinalen testurak ere bestelako informazioa ematen du. Egunen batean erakusketaren bat egiteko asmoa dugu.

— Nola baloratuko zenukete aurtengo hormirudia?

— Beno, egindakoaz gustura gelditu gara.

— Ze teknika erabili duzue egiteko?

— Akrilikoa erabili dugu.

— Hasi zarete datorren urtekoaz pentsatzen?

— Uzteko asmoa dugu dagoeneko. Urte pila bat daramatzagu, eta beste hainbat gazte egon daitezke hormirudia egiteko gogoz.

— Maritxu egunean parte hartzeko ohiturarik baduzue?

— Bai. Arrasateko festarik onena da, dudarik gabe gainera.

### aste gazte

#### ■ DIRULAGUNTZAK

• “Fundación Empresa Pública”k lan esperientziarik ez duten unibertsitate tituludunentzako diru laguntzak antolatu ditu. Epea: urriak 9.

• 98-99 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak egiteko izaera orokorreko diru laguntzetarako deialdia. Epea: urriak 15.

• 1998-99 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak burutzeko laguntzak. Epea: urriak 16.

#### ■ LANA

• Arrasateko Udalerako, emakume teknikaria eta Santamainarako liburuzain laguntzailea behar dira. Epea: urriak 6.

• Etxarri Aranatzeko Udalak liburutegiko arduraduna behar du. Epea: urriak 7.

• Durangorako, liburuzain laguntzailea. Epea: urriak 10.

• Burlatarako, ludotekari bat eta familia langile bat. Epea: urriak 11.

• Lesakako Andra Mari Egoitzarako zuzendaria. Epea: urriak 14.

• Berako Udalak, administrari laguntzaile bat behar du. Epea: urriak 19.

#### ■ LEHIAKETAK

• Gazte Zerbitzuak antolatuta, argazki lehiaketa, “Gazteak eta Komunikazioa” lelopean. Txuri-beltzean edo koloretan, gehienez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 9.

• Komiki ez sexisten Donostiako lehiaketa, euskaraz edo gaztelaniaz. Epea: azaroak 4.

“Uzteko asmoa dugu dagoeneko. Urte pila daramagu, eta beste hainbeste gazte egon daitezke hormirudia egiteko gogoz”

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65



# “Bat egitea oso ona izango da

**O**ñatin jaioa duela 37 urte, hantxe bizi da egun ere. Dena den, Arrasate oso errotuta du bizimoduan, gizona ere hemengoa baitu. Salamanca Unibertsitatean Ingeles filologian lizentziatu ostean, urtebete pasatu zuen Britainia Handian gaztelania irakasten. Ondoren Euskal Herri-ira itzuli eta ordutik ingelesa dabil irakasten nonahi. Azken bost urteak Mondragoeko Institutuan igaro ditu. Aurten zuzendari izatea tokatu zaio, Institutuan gauzatzen ari diren aldaketa guztiak apur bat gidatzeko.

— Zenbat ikasle dituzue?

— Kontuan izanik orain Aretxabaleta eta Arrasateko

Institutuak batu egin garela, bada zazpiehundik gora ikasle guztira.

— Zer ikasketa mota eskaintzen dira orain hemen?

— Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), lehenengo mailatik laugarren mailara eta Batxillergoa edo LOGSEko bi mailak. Batxillergoaren barnean, dauden aukera guztiak eskaintzen ditugu: osasun zientifikoa, humanistikoa eta teknologikoa. Eta horretaz aparte, Aretxabaletako zentruan, heziketa zikloak ditugu, bai ertainak eta bai ta goi mailakoak ere.

— Zerk eraman zaituzte Aretxabaletako Institutuarekin bat egitera?

— Bai zentruarentzat eta

baita bailararentzat ere bat egitea oso komenigarria zela ikusi genuen. Arrasaten eta Aretxabaletan ikastetxe publiko bi egonik, pentsatu genuen biok genituen baliabideak batuz gero, eta haien erabilera hobetuz gero, gure eskaintza zabal genezakeela. Bide batez, zentru bakoitza atal batean espezializatuko litzateke.

— Izan duzue zailtasunik bat egite hau gauzatzeko orduan?

— Nahiz eta hasiera guztiak zailak izan, hasiera hau bi urteko prozesu landu eta sakon baten ondorioa da. Ikastetxearen antolaketa asko aldatu da eta esparrua oso definituta dautzagu.

— Eta irakasle-ikasleek nola hartu dute eraketa berri hau?

— Ondo. Badauzkagu zen-

“Oraindik ikusteko dago irailleko azterketak kentzeak izan lezakeen eragina. Denetariko iritziak izango dira”



# ailararentzat”

bait irakasle Aretxabaletatik hona etorri direnak, beste batzuk eskolak Arrasaten eta Aretxabaletan ematen dituztenak eta ez da inor kexatu. Atal honi dagokionez, gu oso pozik gaude.

## — Zeintzuk dira aurten egingo dituzuen aldaketarik handienak?

— Batetik, bat egitea izan da. Izan ere, iaz hasi arren, aurten gauzatu dugu guztiz, zuzendaritza batzorde bakar bat eratuz. Bestetik, Erreformaren ezarpen osoa legoke, hau da, DBHko laugarrenerraino. Agian hau izango litzateke aldaketarik nagusia. Orain, BBBko bigarrena desagertu da eta horren ordeztu DBHko laugarrena ipini dugu. Honek aldaketa ugari ekarri ditu: ordutegi aldaketa, trinkoa izatetik orain goizetik arratsaldera bitartekoa da, pedagogia aldaketa eta baita ikasketen diseinu aldaketa ere. Orain ikasleek askoz ere aukera gehiago dauzkate hasiera-hasieratik nahiago dituzten ikasketak aukeratu edo ez aukeratzeko, premien arabera.

## — Zer eragin izan leza ke iraileko azterketak desagertzeak?

— Hori oraindik ikusteko dago. Diseinu berria honakoa da: ikasketak ekainean bukatu beharrean, maiatzean bukatuko dituzte. Ondoren, azterketak egin eta gainditu ez dutenek ekainean errekupeazio eskolak izango dituzte eta jarraian erre-

kuperazioak (iraileko azterketen ordeztuak) egingo dituzte.

Nik uste dut gai honen inguruan denetariko iritziak izango direla. Batzuk pozik egongo dira uda libre izango dutelako. Beste batzuentzat ikasteko denbora gutxituko litzateke udako bi hilabete hauek kenduz gero. Guri, berriz, erraztasun handiagoa ematen digu ikasturtea planifikatzeko.

## — Nolakoa da ikasleen eta gurasoen parte hartzea institutuaren joanean?

— Guk daukagun Eskola Kontseiluan parte hartze berdina dugu ikasleek, irakasleek eta gurasoek. Eta kontseilu horretan hartzen dira erabakirik garrantzitsuenak. Ordutegia izan ezik, guztion artean egiten dugu dena.

## — Zenbat ikasle dituzue ikasketak euskaraz egiten eta zenbat gaztelaniaz?

— Askoz gehiago daukagu euskaraz gaztelaniaz baino eta, gainera, DBHko hirugarrenean desagertu egin da gaztelaniazko adarra. Ez dago A ereduko talderik.

## — Irakasle guztiak elebidunak dira?

— Irakasle taldean lauk edo, berba egiteko zailtasuna dute, baina ulertu, denok ulertzen dugu eta gure arteko harremana euskaraz izaten da. Irakasle batzarrak ere euskaraz egiten ditugu. ■

## Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin

## Emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu da

# Jantzi buzoa zuk ere

Soldadura teknikak ikasi eta enpresetan praktikatzeko ateak zabalik dituzue.

### Ikastaroaren iraupena:

Azaroaren 2tik  
martxoaren 31ra arte. (400 ordu)

### Ordutegia:

14:00 -18:00 (astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostirala)

### Plaza mugatuak (15)

Izen ematea: urriak 15

**Antolatzailea:**  
Enplegu Zerbitzua



ARRASATEKO UDALA


**Laguntzailea:**  
Emakume Saila

Emakume Saila ■  
Enplegu Zerbitzua ■



Bikote honek  
zer esan asko  
emango dizu...

**INGELESEZ ETA  
EUSKARAZ**




**CIM eta bai&by** hizkuntz

irakaskuntzaren munduko **bikoterik**

**erakargarriena, sendoena**

**eta osoena** osatzen dute.



**ESPERIENTZIA  
ETA ZERBITZUA**

**CIM**ek hizkuntz irakaskuntzako **25 urteko** eskarmentua, heziketarako enpresa egitasmoa eta zure edozein beharretara moldatzeko gai den zerbitzu malgua eskaintzen du.



**GAZTETASUNA,  
TEKNOLOGIA  
ETA ZALUTASUNA**

CIMen enpresa egitasmoaren bilakaera logikoan oinarrituta, **bai&by**-k azken teknologi baliabideak eta emaitzak bermatzen dizkizun sistema dituen **ingeles eta euskara** ikasteko multimedia metodo modernoa eskaintzen du.

Araba hiribidea, 4 - **Arrasate**

Tel: 943 - 712055 - Fax: 943 - 712181

Olakua, 14 - **Oñati** - Telf: 943 - 716000

• **INTERNET HELBIDEA**

• E-Mail: [empresas@cim-idiomas.com](mailto:empresas@cim-idiomas.com)

• <http://www.cim-idiomas.com>

**i Ingelesa eta euskara ziztu bizian!**



# Badator programazio berria!

Datorren astean ATB berri-tasunez jantzita etorriko zaigu. Izan ere, astelehenean hasiko da programazio berria. Aste osoan zehar albiste aurrerapena izango da eguerdiko 13:30etan. Ondoren Maritxu Kajoi programazio berezia errepikatuko da astelehenean. Gainontzeko egunetan, aldiz, bezperako programa.

Kirolak gustuko dituenak ere izango du bere lekua ATBn, urriaren 5etik aurrera *Mondrasport* saioa izango baita Itxaro Zubillagak aurkeztuta. Hau, astelehenero, gaueko 21:30etan.

## HAURREK ERE BADUTE LEKUA

Jolasa gustuko duten haurrek ere izango dute bere jolas-gurea non asetu: Mikel Lizarralde *Jolasplast* programa aurkeztuko du asteartero, arratsaldeko 19:20etatik 20:00ak bitartean, Arrasate-



Kaleidoskopio kultura saioko aurkezleak.

ko haur guztien gozamenarako. Berrien ondoren, munduko txoko galduenetako kontuak ekarriko ditu ATBra Garikoitz Kortazarrek. Aste honetan Vietnam izango du hizpide, Mikel Diaz de Gereñu gonbidatuarekin batera.

Asteazkenean, berriz, Juanito Arzamendi izango du mahaiaren beste aldean Karmele Zuazubiskarrek.

Ostegunean ATBren programazio berriaren aurkez-

pena egingo da iluntzeko 21:30etan. Azkenik, ostira-lean asteak ekarri dituen albisterik nabarmenenak jorratuko dira Astebete saioan. Ondoren, gaueko 22:00etatik aurrera, soinuuz ongi bustiko gaituzte Iban Gonzalezek eta Edu Abasolok *Soinuz Blai* musika saioarekin.

On egin dagizueta guttiori, bada, ATBren programazio berriak!

## Esatari berriak Arrasate Irratian

Arrasate Irratiak aurpegi eta ahots berriak izango ditu datorren urriaren 1etik aurrera. Astelehen goizean Arrasate irratiarako azkerketak egin ziren Arrasateko udaletxean. Guztira bi langile eta bekadun bat hartuko dira.


Arantxa Egoskozabal, 26 urteko kazetari oñatiarrak urte eta erdiko lan kontratua izango du. Arantxa *Extra* agerarikozuzendaria izan da orain arte. Marian Porcel kazetari arrasatearrak, bestalde, urtebeteko lan kontratua izango du. Marian *Arrasate Press* eta ATBko kazetaria izan da.

Horiekin batera, bekadun bat ere hartuko da: Belen Carenas, 25 urteko arrasatearra. Belen teknikaria da ikusentzuneakoetan.

Denak ere urriaren 1ean hasiko dira lanean.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 3	ASTELEHENA, 4	ASTEARTEA, 5	ASTEAZKENA, 6	OSTEGUNA, 7	OSTIRALA, 8
14:00 <b>Maritxu Kajoi</b> programa berezia.	13:30 <b>Albiste aurrerapena.</b> 13:40 <b>Maritxu Kajoi</b> programa berezia. (Errepika). 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b> 21:30 <b>Mondrasport.</b> Itxaro Zubillagak asteburuko kirol programa.	13:30 <b>Albiste aurrerapena.</b> 13:40 <b>Mondrasport</b> (Errepika). 19:20 <b>JolasPlast.</b> Mikel Lizarralde egindako haurrentzako programa. 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b> 21:30 <b>Munduari Bueltaka.</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena.</b> 13:40 <b>Munduari Bueltaka</b> (Errepika). 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b> 21:30 <b>Aurrez-Aurre.</b> Karmele Zuazubiskarrek aurkeztua.	13:30 <b>Albiste aurrerapena.</b> 13:40 <b>Aurrez-Aurre</b> (Errepika). 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b> 21:30 <b>ATBren programazioaren aurkezpena.</b>	13:30 <b>Albiste aurrerapena.</b> 13:40 <b>ATBren programazioaren aurkezpena</b> (errepika). 20:00/20:30/21:30 <b>Berriak.</b> 21:30 <b>Astebete.</b> 22:00 <b>Soinuz Blai.</b> Iban Gonzalez eta Edu Abasolorekin.







**F**utbola boladan dago, baina ez orain bakarrik Hona hemen kirol honek gure herrian izan duen presentziaren aspaldiko adierazgarri bat.

Argazki hau Gazteluondoko Eskolan dago aterata duela 50 bat urte eta azaltzen diren jokalariai hauetxek dira, ezkerretik hasita. Zutik: Gabriel Mendizabal, Alberto Pereda, David Otero, Luis Lopez

(Bomba), Joaquin Gutierrez eta Alejandro Aguirreurreta. Makurtuta daudenak, berriz, Santiago Garcia, Roman Lopez, Josetxu Inda, Francisco Otero eta Alberto Abasolo dira.

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tel.: 943 77 13 78

**JUBAR**  
**ATEAK. S.L.®**

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Katalde industrialdea, 18 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**PEÑAKOBA**

Zarugalde, 46  
 Tel.Faxa: 79 29 93  
 ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7  
 Tel.: 78 05 60  
 OÑATI

**Aupa Maritxu!**

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62



## Zure osasuna da LIRAINen helburua



### Zerbitzu medikoa

Kirola kontrolik barik egitea arriskutsua izan daiteke. Horregatik, izena emate-rakoan LIRAINek azterketa medikoa eskaintzen dizu zure osasun egoera ezagutzeko. Ez ezazu zeure osasunarekin jolastu!




### Masajeak

Zure gorputzeko "korapiloak" askatzeko, fisioterapeuta profesionala dugu LIRAINen. Edozein kirol ekintza egiterakoan zerbitzu osagarria izan behar du masajeak. Emaiozu zeure gorputzari behar duen saria!

## Zoruetan ere kalitatea


Oso garrantzitsua da zoru egokia izatea kirola egiteko. Horregatik LIRAINek merkatuan dagoen zorurik seguruena aukeratu du bere gimnasiorako, kirol ekintzetan gerta daitezkeen arazoak (belaunean, orkatilan...) aurrezaintzeko.

Labanketaren aurkako zorua



KONTROLA

Kolpe motelgarria



SEGURTASUNA

Indarraren probetxamendua



ERRENDIMENDUA

Mugimenduen erraztasuna



MALGUTASUNA

- 300 m<sup>2</sup>z goatzeko aukera.
- 14 laguneko talde profesionalena.
- Astelehenetik igandea arte zure zerbitzura.

Bixente Ferrer, 1  
ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17

(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)



*Escort*


**HARRITU  
ZAITEZ**




**ESCORT 1.800 TDI 90 cv 1.950.000 pta.**

**ESCORT 1.600 I 16V/90 cv 1.749.000 pta.**

**LASTER ZUREKIN...**



**focus**



# focus

*"Benetako World-Car bezala hartua"  
Autopista 2004 zenb.*

*"Ginebrako auto izarra,  
Ford Focus udazkenerako aterako da"  
98/3/4 Negocios*

*"Estetikoki erakargarria,  
Ford Focus-a gainera,  
pertsonala eta praktikoa da"  
AUTOPISTA, 2017 zenb.*



**DEBA GARAICO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA**

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44